


VILLA MARÍA ELO
D MAILA

ATEGORRIETAKO GALTZARA ZAHARRA 83



Eduardo Lagarde, 1938

Deskribapena

Mendiko txalet baten itxura duen etxea, 30eko hamarkadaren amaierakoa; badu estilo neoeuskaldunaren puntu lauso bat, baina nahiko urrun dago estilo horretatik. Jarrera argi eta garbi eklektiko batez Lagardek, bere diseinuetan, mugimendu modernoari segi ziezaiokeen, edo neobarrokoari, edo hau bezalako txaletak egin, aldi berean. Bi isurkiko estalkiarekin alde batean uzten du hurbileko adibidetako neoeuskalduna, inguruko multzoaren balioa are nabarmenagotuz horrela. Isurki biak beheko solairuraino luzatzen dira, etxearen neurriak nabarmenduz nolabait bi solairu eta balkoi nagusi jarraitua dauzkan konposizio simetrikoan.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.